

## BESTELAKO XEDAPENAK

### LEHENDAKARITZA

## 3532

*EBAZPENA, 2020ko uztailaren 29koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria-rena, zeinaren bidez deialdia egiten baita Berdintasunaren aldeko 2020ko Emakunde Sarirako.*

Berdintasunaren aldeko Emakunde Saria sortzeko eta arautzeko irailaren 12ko 166/2006 Dekretuak ezartzen du sari hori, zeinaren xedea baita azpimarratzea eta publikoki aitortzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko lana dela-eta nabarmendu diren pertsona fisiko edo juridiko publiko nahiz pribatuen jarduna; emakumeen lana aitortzeko eta haiek ahalduntzeko edo sexuen arteko berdintasun-eskubideak eta -aukerak sustatzeko jarduerak egin dituzte pertsona horiek.

Deialdi hau bat dator Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2018ko urriaren 31ko Ebazpenean ezarritakoarekin (ebazpen horren bidez, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen 2019-2021 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen da).

Bidezkoa da, beraz, deialdi hau egitea 2020ko ekitaldirako, aipatutako Dekretuaren 1. artikulua aplikatuz.

Horrenbestez, honako hau

### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

Berdintasunaren aldeko Emakunde Sariaren deialdia egitea 2020. urterako, irailaren 12ko 166/2006 Dekretuaren arabera eta onartzen diren eta ebazpen honi erantsita ageri diren oinarrien arabera.

### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean, dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hileko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera.

### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 29a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,  
MIREN IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.

## ERANSKINA

## BERDINTASUNAREN ALDEKO 2020KO EMAKUNDE SARIAREN OINARRIAK

Lehenengoa.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da Berdintasunaren aldeko 2020ko Emakunde Sariaren deialdia egitea. Sari horren bidez azpimarratu eta jendaurrean aitortu nahi da emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean egindako lanagatik nabarmendu diren pertsona fisiko eta juridiko publiko nahiz pribatuen jarduna. Saria ematen zaie, hain zuzen ere, emakumeen lana aitortzen laguntzeko edo emakumeen ahalduntzea hobetzeko zenbait ekintza, lan edo proiektu egin dituztelako edota beren jarduerak nabarmen lagundu duelako emakumeen zeregina balioesten eta duin bihurtzen edo EAeko emakumeen eta gizonen eskubide- eta aukera-berdintasuna sustatzen.

Bigarrena.– Diru-kopurua.

14.400 eurokoa da sariaren diru-kopuru gordina.

Hirugarrena.– Hautagaitzak aurkeztea.

1.– 2020ko urriaren 9an amaituko da hautagaitzak aurkezteko epea.

2.– Interesdunek hautagaitzak aurkeztu ditzakete, eta prozedura honetako izapide guztiak kontsultatu, bide elektronikoz edo aurrez aurre, zuzenean Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egoitzan (Manuel Iradier kalea 36, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako organoetan.

Zuzenean zerbitzuan hautagaitza aurrez aurre aurkeztu nahi izanez gero, hitzordua jarri beharko dute aldez aurretik, 012 doako telefonoaren bidez (945 018000) edo online, honako webgune honen bidez: <https://www.euskadi.eus/hitzordua-zuzenean>

Hautagaitzak bide elektronikoz aurkeztu beharko dituzte pertsona juridiko interesdunek eta edozein izapidetarako administrazio publikoekin harremana bitarteko elektronikoz izatera behar-tuta daudenek, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan.

Interesdunek ez dute zertan Eusko Jaurlaritzaren esku dauden datuak eta agiriak aurkeztu. Eskubide horretaz baliatzen direnean, baimena ematen diote Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari datu edo dokumentu horiek dauden organoetatik eskuratzeko. Bitarteko elektronikoen bidez ere baliatu ahal izango da eskubide horretaz.

Interesdunek onartutako egiaztagiri elektronikoa bat izan behar dute, prozedura honen izapide guztiak bitarteko elektronikoa erabiliz egin ahal izateko: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Posta-bulegoaren bidez aurkezten diren eskabideak kartazal irekian jarri behar dira, egiaztatu aurretik posta-zerbitzuko funtzionarioek eguna eta zigilua jartzeko. Hala egin ezean, eskabidea dagokion bulego publikoan noiz sartzen den, egun horretan aurkeztutzat joko da.

– Eskabideak bide elektronikoz aurkezteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa hau dago: <https://www.euskadi.eus/egoitza> <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0028606>

– Eskabideak elektronikoki aurkeztu ahal izango dira ordezkari baten bidez. Horretarako, ordezkariak Eusko Jaurlaritzaren Ordezkarien Erregistroan eman beharko du izena: <https://www.euskadi.eus/ordezkariek>

– Egoitza elektronikoa eskuragarri daude izapideak aurrez aurre nahiz bide elektronikoz egiteko argibideak, eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0028606>

– Eskararen ondorengo izapideak, bide elektronikoz, helbide honetan egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Eskabidea izapidetzeko eta agiriak aurkezteko bide bat edo bestea erabiltzeak, hau da, aurrez aurrekoa edo elektronikoa erabiltzeak, ez du behartzen bide bera erabiltzera aurrerantzean ere prozedurako gainerako izapideak egiteko, eta edozein momentutan alda daiteke aukeratutako bidea. Legeak bide elektronikoa erabiltzera behartzen badu ezin izango du besterik erabili.

4.– Euskaraz edo gaztelaniaz aurkez ditzakete eskabidea eta hari erantsitako agiriak erakunde eskatzaileek, nahi bezala. Halaber, eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da prozedura guztian, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezartzen den moduan.

5.– Hautagaitzekin batera, hauek aurkeztu beharko dira: gehienez 20 orriko memoria bat; emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egiten dela egiaztatzeko agiriak; memoriaren laburpen bat, 2 orrialde baino gutxiagokoa, zeinetan bilduko baitira aurkeztutako hautagaitza sari horretarako egokia izatearen arrazoiak balorazio-irizpideei jarraikiz. Hautagaitza pertsona juridikoa bada, emakumezkoen zein gizonzkoen osaera-kopurua zehaztu behar da.

6.– Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko lana aitortzeko aurkeztu diren hautagaiek –erakunde nahiz pertsona izan– ez dute egon behar dirulaguntza publikoak eskuratu ahal izateko zigor penal edo administratiboren baten edo dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko ezgaitzen duen lege-debekuren baten eraginpean, ezta sexu-bazterkeriagatik zigortuta ere, barne direlarik sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak. Horretarako, I. eranskina bete beharko dute hautagaiek.

Pertsona eta erakunde onuradunek bete beharko dituzte Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako baldintzak, eta berariaz, argi eta zehatz egiaztatatu beharko dituzte.

7.– Beharrezkoa dela iritziz gero, informazio gehiago eska dezake Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak.

8.– Hautagaitza irabazlea zein den jakinarazi baino lehen, elektronikoki egiaztatuko da hautagaitza horrek beteak dituela bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritakoa betez. Hautagaitza onuradunak berariaz uka dezake elektronikoki egiaztatze baimen hori, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22.4 artikuluekin bat etorriz.

Era berean, hirugarrenen alta egiaztatuko da, elektronikoki izapidetu ahal izango da egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen zerbitzuaren bidez: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

9.– Aurkeztu diren baina sarituak izan ez diren hautagaitzak errekuperatu ahal izango dituzte interesdunek, 2021eko otsailaren 28a arte, non eta ez duten baimena eman aintzat hartuak izan daitezzen hurrengo deialdian, I. eranskinean. Dena den, Administrazioa ez da arduradun egiten epe horretan erretiratu ez diren hautagaitzez.

Laugarrena.– Esleitzeko irizpideak.

Erabakia hartzeko, jasotako hizkuntzan baloratuko ditu hautagaitzak eta/edo lanak epaimahaiak, eta irizpide hauek hartuko ditu aintzat, eta berdina izango da haztapena bakoitzarentzat:

a) Proposatutako pertsonak izan duen ibilbidea emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, non garatu baitu bere jarduna.

b) Emakumeen lana eta haien ahalduntzea aitortzera edo sexuen arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna sustatzera bideratutako jardunaren, ekintzen, lanen edo proiektuen berezko garrantzia.

c) Jardunen, ekintzen, lanen edo proiektuen oihartzuna eta eragina gizartean, edo proposatutako pertsonak egin duen ibilbidea.

Bosgarrena.– Aurkeztutako hautagaitzetan egindako akatsak zuzentzea.

Hautagaitzak behar bezala betetzen ez badira edo eskatutako agiriren bat falta badute, Emakundek falta den agiria aurkezteko edo antzemandako hutsa zuzentzeko eskatuko dio interesdunari, eta horretarako, hamar eguneko epea emango dio jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera. Horrez gain, eskatutakoa egin ezean, eskaera ezetsi egingo dela ohartarazten zaio eskatzaileari; eskaera ezesteko, aurretiaz ebazpena eman beharko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. eta 68. artikuluetan agindutakoari jarraikiz (39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).

Seigarrena.– Datu pertsonalen tratamendua.

Deialdi honetan parte hartzen duten lagunen datu pertsonalak sartuko dira Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearen «Bekak, sariak, laguntzak eta dirulaguntzak» izeneko datuen tratamendua egiteko. Tratamendu hori Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan araututa dago, eta Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduan xedatutakoari lotuta dago. Esteka honen bidez informazio gehiago lor dezakezu: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/062200-capa1-eu.shtml>

Erakundeak sustatutako laguntzak kudeatzeko bakarrik erabiliko da fitxategi hau botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko. Hala nahi dutenek, legeak aurreikusten dituen eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko, aurka egiteko, edo Erregelamenduan aurreikusitako eskubideak baliatu ahal izango dituzte. Datuak babesteko informazioa: <https://www.euskadi.eus/datu-babesa>

Datu pertsonalak ez dira hirugarren herrialdeetara bidaliko, ezta hirugarren pertsonari emango ere, ez bada lege-eginbehar bat betetzeko.